

«Gure bezeroek gizartearen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen dute»

Kutxabankek, bere akziodun diren banku-fundazioekin batera, ekonomian daukan eragina aztertu du, hala BPGd-aren sorkuntzan nola administrazioen diru-bilketan. Txostenaren ondorioak oso argiak dira. Horiei buruz hitz egin dugu Iñaki Beristainekin, azterketaren gainbegiralearekin.



Azterketaren arabera, Kutxabankek eta bere akziodunek estatuan sortutako jardueraren eragina 1.379 milioi eurokoa da. Nola kalkulatu da bolumen hori?

Erakunde baten jarduerak errenten sorreran, enpleguan eta zerga-bilketan daukan eragina aztertzen dute inpaktu-azterketek, normalean epealdi jakin batean, eta bi alderdi aintzat hartuta: **jarduera korporatiboa** eta **finantzaketa**.

Epealdi jakin batean, kasu honetan 2018ko ektialdian, Kutxabanken eta bere Taldearen **jarduera korporatiboaren** inpaktu orokorraren barruan hiru eragin mota ditugu: zuzenekoa, zeharkakoa eta induzitua.

Lehenik eta behin, «**zuzeneko inpaktua**» daukagu, ondasunen erosketaren eta Kutxabanken eta bere akziodun BBK, Kutxa eta Vital banku-fundazioen jarduerarekin loturiko zerbitzuen fluxuak barne hartzen dituen, bai eta bankuak zuzenean ordaintzen dituen soldata guztiak ere. Zenbateko osoa **859 milioi eurokoa da**.

Bigarrenik, *Input-Output* taulen bidez, «**zeharkako inpaktua**» neurtzen da, hau da, langileek hainbat kontzeptutan egin dituzten gastuen eragina, esate baterako, azokan, botikan, kulturen edo ondasunen erosketan. Kasu honetan, eragina **483 milioi eurokoa** da. Azkenik, hirugarren maila daukagu, hau da, «eragin induzitua», sistema osoan daukan eragina neurtzen duena. Hau da, aurreko bi inpaktuen (zuzenekoa eta zeharkakoaren) inpaktu konbinatuaren ondorioz dendariaren, botikariaren edo liburu-saltzailearen fluxuak zenbat hazten diren

kalkulatzen da; kasu honetan, **37 milioi euroko** kalkulu bat egin da. Hiru eragin horiek batuta, **inpaktu korporatiboa 1.379 milioi eurokoa dela** ondorioztatu dezakegu.

Horrez gain, enpleguan eta zerga-bilketan eragina zein den ere modu berean kalkulatzen da.

Gehien hazi den ataletako bat zerga-bilketarena izan da. Zer esan nahi du igoera horrek?

Jarduera korporatiboaren zerga-eragina ia % 13 hazi da. Aurreikusitako zerga bidezko diru-sarrerak **623 milioi eurokoak** dira, eta zatirik handiena, hain zuzen ere **423 milioi**, Kutxabank eta bere Taldearen jardueraren zuzeneko eraginari esker sortutakoa da. Zerga mota bakoitzaren zerga-oinarriak kalkulatzen dira (BEZa eta produktuen gaineko beste zerga batzuk, kotizazio sozialak, PFEZ eta sozietateen zerga), eta haietako bakoitzaren batez besteko tasak aplikatzen zaizkie.

Inpaktuak oso esanguratsuak dira jatorrizko lurraldeetan, batez ere Euskadin, hala BPGd-an nola diru-kutxa publikoari egindako ordainketetan edo hornitzaileen kontratazioan, Kutxabank eta bere akziodunak sailkapeneko maila gorenetan baitaude.

Kutxabankek eta bere Taldeak matrizearen jatorrizko lurraldean dituzten sustrai sakonak eta bertan daukaten ezarpen sendoa daude azterketan erabilitako jardueraren adierazle guztietan daukan eragin erlatibo handiagoren oinarrian. Horren erakusgarri da, jarduera korporatiboa kontuan hartuta, Kutxabankek daukan pisua BPGd-aren % 1,1ekoa dela, enpleguaren % 0,8koa eta zerga-bilketaren % 0,5ekoa. Eragin hori nabarmen hazten da sisteman mantendutako finantzaketa jarduerarekin lotutako informazioa gehitzen badiogu kalkuluari. Hartara, BPGd-an % 11,7ko pisua izango luke, % 12,4koa enpleguan eta Euskadin jasotako zergen % 4,5a, euskal BPGd-ari dagokionez.

Datuak apalagoak badira ere, ildo berari jarraitzen dio Andaluziako ekonomian daukan eraginak.

Arreta pizten du Taldearen hornitzaile diren enpresen kopuru handiak. Bere trakzio gaitasuna hobekien islatzen duen esparrua dela uste duzu?

Esan daiteke Kutxabankek bere jarduera-esparruko enpresen artean daukan eragina sare itxurakoa dela, eta guztira 7.839 hornitzailearengana iristen dela. Horietako 4.300 EAEkoak dira, eta esparru honetan hornitzaile gehien daukan enpresetako bat da. Horren arrazoia, hein handi batean, zera da, bankuak berak zein batez ere haren jabe diren banku-fundazioek (BBK Fundazioak, Kutxa Fundazioak eta Vital Fundazioak) jarduera handia eta askotarikoa daukatela, haien bokazio sozialari jarraikiz, gizarte-lana aurrera eramateko eta haietako bakoitzaren gizarte-ekintza gauzatzeko.



Datu horiek guztiak biderkatu egiten dira kreditu-jarduera gehitzen badiegu. Zergatik aztertzen da inpaktua ikuspegi horretatik ere bai, eta zein da bere balio erreala?

Kreditu-jardueraren eragina erakunde batek egiten duen ekarpena da batez ere enpresek inbertsioari eutsi diezaioten, eta inbertsio horiek sistema ekonomikoan daukaten inpaktua neurtzen da.

Oso zabaldua dauden eta beste finantza-erakunde batzuek erabiltzen dituzten ereduakin bateragarria den inpaktu-ereduari gehitzen zaio kalkulu hori. Gure kasuan, eredia balioetsi duen CEPREDEren, Madrileko Unibertsitate Autonomoari atxikitako Aurreikuspen Ekonomikoen Zentroaren, babes akademikoa dauka.

CEPREDEK prestatutako txostena eta datu hauek zenbatu, baloratu eta ezagutzeak zer ekarpen egiten diote Kutxabank Taldeari?

Zenbatu eta neurtzearen aldekoak gara, hobetzeko modu bat delako, eragile ekonomikoei (*stakeholders*) Kutxabanken eta bere akziodunen konpromisoaren berri emateko modua delako, garapen ekonomikoarekin, enpleguaren sorrerarekin eta oro har erakunde publikoekin daukagun konpromisoa, zerga-bilketaren bidez egiten dugun ekarpenaren bitartez.

Aldian behin, aipatutako hiru ardatzekin daukagun konpromisoaren aurreikuspen gardenak egitea bezeroei zerbitzu hobea emateko eta denbora luzez gure bankuan konfiantza izan duten eragile guztiekin daukagun konfiantza sendotzeko modu bat direla argi ikusten dugu.

Zein da txosten honek gure Banka Pertsonaleko bezeroei egiten dien ekarpena?

Nire ustez, azterlan hauen bidez, agerian geratzen da zer garrantzitsua den tokiko erakundeekin lan egitea, lurraldean presentzia zabala dutenak eta enplegua sortzen dutenak, zergak ordaintzen dituztenak, hornitzaileen zerbitzuak erabiltzen dituztenak eta, gure kasuan, gainera, etekinak gizarteari itzultzen dizkietenak, banku-fundazioen gizarte-ekintzen bitartez. Azken batean, gure bezeroek Kutxabank erakunde kaudimentsuarekin lan egiten dutenez, gure gizartearen bizikaltatea hobetzen laguntzen dute.

